

Eskubide eta betebeharrak gaika: Informazio klinikoa

5. artikulua Informazio klinikorako eskubidea.

Bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsonak, familia arrazoiengatik edo izatezko arrazoiengatik haiekin lotutakoek eta prozesu horrekin lotutako erabakiak hartu behar dituztenek eskubidea dute egiazko informazio kliniko, sanitario eta asistentzial ulergarri eta egokia jasotzeko, legeria aplikagarrian aurreikusitako moduan, erabakiak modu autonomoan hartzen laguntzeko. Informazioa ahozkoa izango da, oro har, eta historia klinikoan jasoko da.

Bizitzaren amaierako prozesuan dagoen pertsonari laguntza ematen inplikaturiko osasun alorreko profesionalak hari informazio klinikoa berariaz eskaini eta hark informazioa bere borondatez eta libreki errefusatzeko baldin badu, informatua ez izateko erabaki hori errespetatu egin behar da. Informazioa ematea beharrezkoa denean, informazio eta dokumentazio klinikoaren alorreko eskubide eta betebeharrak buruzko oinarrizko legerian aurreikusitako irizpideen arabera emango da; familiak edo izatez gaixoarekin lotutako pertsonen emango zaie informazioa edo, hala badagokio ordezkari izendatutako pertsonari.

Informazio klinikorako eskubidearen titularra bizitzaren amaierako prozesuan dagoen pertsona bera da. Alabaina, informazioa eman ahalko zaie, halaber, izendatutako pertsona ordezkariari edo gaixoarekin arrazoi familiarrengatik edo izatezko arrazoiengatik lotutako pertsonen, gaixoak horretarako baimena ematen badu edo, artatzen duten profesionalen ustez, gaixoak ez badu gaitasunik informazioa ulertzeko dagoen egoera fisiko edo psikikoa dela-eta.

14. artikulua Informazio klinikoaren inguruko betebeharrak.

Pertsonal medikoak bermatuko du informazio-eskubidea. Sendagile arduradunak koordinatu behar ditu gaixoari eta erabiltzaileari ematen zaizkion informazioa eta osasun-laguntza, haren solaskide nagusi gisa jokatzeko laguntza-prozesuan zehar emango zaizkion arretari eta informazioari buruzko guztiari dagokionez, eta bermatu behar du gaixoaren informazio-eskubidea, gaixoaren autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren gaineko eskubide eta betebeharrak buruz oinarrizko legerian ezarritakoaren arabera, baztertu gabe laguntza-jardueretan parte hartzen duten beste profesionalen betebeharrak.

Profesional sanitarioek historia klinikoan jasota utzi behar dute gaixoei emandako informazioa.

Gaixoari teknika zehatz edo prozedura espezifiko bat aplikatzen dioten laguntza-alorreko profesionalek erantzukizun espezifikoa izango dute aipatu teknikari buruzko informazio-prozesuan, mediku arduradunaren gainbegiradapean.